

6. Harremanak

Konbinazio bat egitea erabaki dugu. Honek, hau esan nahi du: bezeroek bi modu edukiko dituztela gugandik informazioa lortzeko eta gure produktua erosi nahi izateko, bi modu hauen (on-line erosketak eta erosketak fisikoak) konbinazioa egingo dugu.

Web-gunearen bitartez informazio asko jaso ahal izango dute, betaurreko eta mekanismo mota desberdinen artean aukeratzeko gunea ere edukiko dute eta gurekin kontaktuan jartzeko e-mail, telefono eta helbidea ere bai.

Denda fisikoan ordea, betaurreko modelo ezberdinak eta mekanismoak fisikoki ikusteko aukera ere izango dute. Modelo desberdinak probatzeko aukera izango dute eta mekanismoak nola funtzionatzen duen azaltzeko prest egongo gara.